

## Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala

245. zenbakia

Data 1997-12-24

18393 orria

---

### **3 GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO XEDAPEN OROKORRAK ALDUNDIA - OGASUNA ETA FINANTZAK Abenduaren 17ko 1040/1997 Foru Agindua, Fabrikazio Zerga Berezirako eredu eta izenemate txartelak onartzeari buruzkoa**

---

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA OGASUN ETA FINANTZA  
DEPARTAMENTUA Abenduaren 17ko 1.040/1997 FORU AGINDUA, Fabrikazio  
Zerga Berezien 504, 505, 509, 511, 517, 524 eta 572 ereduak eta Gipuzkoako Foru  
Aldundiko Erregistroan izena ematearen txartelak onartzen dituenak.

Zerga Berezien Erregelamenduak, uztailearen 7ko 1165/1995 Errege Dekretu  
bidez onartuak, bere artikuluetan jaso ditu aitortzen, baimen eskaeren edo diru  
itzulketaren eredu batzuk, zerga horien kudeaketa errazteko asmoz.

Zehazki, eta foru agindu honi dagokionean, aipatu erregelamenduak zirkulazioan  
izandako galerei buruzko 16. artikuluan 4 apartatua jasotzen denez,  
gorabeherak aitortzeko eredu bat onartuko da (gorabeheren orria). Eredu horren  
helburua da zerga bereziei lotutako produktuek suspentsio erregimenean estatu  
barruko zirkulazioan dauzkaten galeren aitortpena ahalbideratzea, galerak  
handiagoak direnean erregelamenduzko portzentaiak aplikatuz ateratzen diren  
zenbatekoak baino eta, halaber, galera horiek hartzailearen jaso izanaren  
ziurtagirian agertzen direnean.

Marka fiskalei buruzko 26. artikuluan jasota dagoenez, beste eredu bat onartuko  
da, eta bere helburua izango da fabrikatzaileek eta zerga gordailuen titularrek  
bulego kudeatzaileari planta botilaratzaile edo ontziratzaile independentea ez  
den estatu barruko destinoarekin suspentsio erregimenetik kanpo zirkulatzen  
diren edari deribatuen eta zigarriloen xingolak eta, hala behar direnean, zigiluak  
eskatzea. Halaber, aipatu ereduak aurkeztu beharko dute fabrikatzaileek, zerga  
gordailuen titularrek eta Europako Batasuneko beste estatu batetik suspentsio  
erregimenean edo igorpen bermadunen bidez datozen edari deribatuen eta  
zigarriloen jasotzaileek ere, bai eta urrutiko salmenta bidez produktu horiek  
hartzeko izendatuta dauden zergetarako ordezkariak ere.

Bideko salmentei buruzko 27. artikuluan jasotzen denez, igorlea behartuta dago,  
tasa murriztuarekin igorritako produktuak direnean, laburpen aitortpena  
aurkeztera. Horretarako, aurreko hilabete naturalean bideko salmenten prozedura  
dela medio egindako produktu horien salmentak adieraziko dira.

33. artikuluan jaso denez, berriz, beste eredu bat onartuko da erregistratu gabeko  
operadoreek, igorpen bermadunen sisteman ari diren jasotzaileek eta urrutiko  
salmenten sisteman jarduten diren zergetarako ordezkariak baimena eska  
dezaten zerga bereziei lotutako ondasunak jasotzeko, artikulua horretan bertan  
jarritako arauak jarraiki. Artikulu berean jasota dago, halaber, beste eredu baten  
onarpena, bulego kudeatzaileak produktua jasotzeko baimena eman dezan.

54. artikuluan, elikagaiak eta elikagai eta alkoholik gabeko edarien  
aromatizanteak prestatzean alkohola erabiltzeagatik Zerga itzultzeari  
dagokionean, aldiz, eredu baten onarpena jasota dago. Alkoholaren edo edari  
alkoholdunen produktu kontsumituetan jasandako kuoten itzulketa eskatzea da  
ereduaren xedea, elikagaiak eta elikagai eta alkoholik gabeko edarien  
aromatizanteak prestatzean alkohola erabiltzen denean.

109. artikuluan, hau da, Zerga Berezien Legeak 50. artikuluan 1. tarifyan sartutako produktuak erregai eta karburante gisa ez erabiltzeagatik egin beharreko itzulketei buruzkoan, jasota geratu da eredu baten onarpena. Horren helburua da ustiapen industrialen titularrek Hidrokarburoen gaineko Zergan kontsumitu diren eta erregai eta karburantearena ez den erabilerara zuzendu diren produktuen kuoten itzulketa eskatzea.

Azkenik, aipatu erregelamenduak 40. artikuluan jasotzen duenez, kudeaketa bulegoak luzatuko du ondorengoek Gipuzkoako Erregistroan izena ematearen txartel frogagarria, horretarako onartuko den ereduaren arabera: fabrika, gordailu fiskal eta biltegi fiskalen titularrek, produktuak jasotzeko gordailuei dagokienez erregistratutako operadoreek, Erregelamenduan jasotako txikizkako saltzaileek, erabiltzaileek eta amaierako kontsumitzaileek, urrutiko salmentak egiten dituzten enpresek eta zergeterako ordezkariak.

Abuztuaren 4ko 38/1997 Legeak, Euskal Autonomi Elkartearen Ekonomi Ituna aldatzen duenak, zerga bereziak ordainarazteko eta aitorten ereduak onartzeko lurralde historikoei emandako eskumena kontuan hartuz, bidezkoa da aurreko parrafoetan aipatutako ereduak onartzea.

Gauzak horrela, hau, EBATZI DUT

1. artikulua. Fabrikazio Zerga Berezien 504, 505, 509, 511, 517, 524 eta 572 ereduak onartzea.

Bat. 504 eredu onartu da: Europako Batasunaren gainerako estatuetatik Fabrikazio Zerga Bereziei lotutako produktuak jasotzeko baimenaren eskaera. Foru agindu honen 1. eraskinean ageri da.

Bi ale dauzka eredu horrek:

Interesatuarentzako alea.

Zerga Administrazioarentzako alea.

504 eredu Europako Batasuneko suspentsio erregimeneko zirkulaziotik datozen zerga bereziei lotutako ondasunak jaso nahi dituzten erregistratu gabeko operadoreek aurkeztu beharko dute, bai eta igorpen bermadunen sisteman ari diren jasotzaileek eta urrutiko salmentaren sisteman ari diren zergeterako ordezkariak Batasuneko erregimen ez suspentsiboko zirkulaziotik datozen zerga bereziei lotutako ondasunak jasotzen dituztenean. Aipatu eredu eragiketa bakoitzeko aurkeztuko da, eta horrekin batera eskatzailea enpresaria dela eta, hala behar denean, berariazko xedapenetan jasotako obligazioak bete direla frogatzeko behar den dokumentazioa aurkeztu beharko da. Bakarrik eskaera batean sartu ahal izango dira hornitzaile bakar batek luzatu dituen eta Hidrokarburoen Zerga, Tabako Laboren Zerga edo Alkoholaren eta Edari Alkoholdunen Zerga Berezien esparru objetiboan sartuta dauden produktuak. Urrutiko salmenten sisteman izan ezik, eskaerarekin batera bermea eratu beharko da hartu nahi diren produktuen kuoten adinakoa. Gerora sor daitezkeen zergen ordainketari erantzungo dio berme horrek.

Bi. 505 eredu onartu da: Europako Batasuneko gainerako estatuetako zerga bereziei lotutako produktuak jasotzeko baimena. Foru agindu honen 2. eraskinean ageri da.

Hiru ale dauzka eredu horrek:

Interesatuarentzako alea.

Hornitzailearentzako alea.

Zerga Administrazioarentzako alea.

Ogasun eta Finantza Departamentuko Zeharkako Zergak Kudeatzeko Zerbitzuak, aurreko apartatuaren azken parrafoan aipatutako bermeak zerga

estali duela egiaztatu ondoren, eredu hau baimenduko du, eta hornitzailearen alea eta interesatuarena emango ditu.

Hiru. 509 eredua onartu da: gorabeheren orria. Foru agindu honen 3. eraskinean ageri da.

Bi ale dauzka eredu horrek:

Interesatuarentzako alea.

Zerga Administrazioarentzako alea.

Zerga bereziei lotutako produktuen igorleak aurkeztu behar du eredu hori, estatu barruko zirkulazioan suspentsio erregimenean izandako galerak handiagoak direnean erregelamenduzko portzentaiak aplikatuz ateratzen direnak baino eta hartzailearen jaso izanaren ziurtagian agertzen direnean. Halaber, orri hori aurkeztu beharko da igorleak agiri laguntzailearen 3. alea jaso ez duenean edo ale hori behar bezala bete gabe jaso duenean, hiru hilabeteko epean igorpen datatik aurrera.

Halaber, eredu hori aurkeztuko da estatu barrutik Batasuneko beste estatura igorritako produktuak helburura iristen ez direnean.

Lau. 511 eredua onartu da: bideko salmenten prozedura dela medio tasa murriztuarekin igorritako produktuen emate orrien hileko zerrenda. Foru agindu honen 4. eraskinean ageri da.

Bi ale dauzka eredu horrek:

Interesatuarentzako alea.

Zerga Administrazioarentzako alea.

Eredu hori aurkeztu beharko dute fabrikatik, zerga gordailuetatik edo zerga biltegietatik bideko salmenta bidez ateratako produktuen igorleek, zerga hori tasa murriztuan sortu denean.

Bost. 517 eredua onartu da: marka fiskalen eskaera. Foru agindu honen 5. eraskinean ageri da.

Bi ale dauzka eredu horrek:

Interesatuarentzako alea.

Zerga Administrazioarentzako alea.

Eredu hori fabrikatzaileek eta zerga gordailuen titularrek aurkeztuko dute. Ereduaren helburua da planta botilaratzaile edo ontziratzaile independentea ez den estatu barruko destinoarekin suspentsio erregimenetik kanpo edari deribatuak eta zigarriloak zirkulatzeko aukera ematen duten xingolak eta, hala behar direnean, zigiluak eskatzea.

Halaber, eta helburu berberaz, aipatu eredua aurkeztu beharko dute fabrikatzaileek, zerga gordailuen titularrek eta Europako Batasuneko beste estatu batetik suspentsio erregimenean edo igorpen bermadunen bidez datozen edari deribatuen eta zigarriloen jasotzaileek ere, bai eta urrutiko salmenta bidez produktu horiek hartzeko izendatuta dauden zergetarako ordezkariak ere.

Sei. 524 eredua onartu da: Alkoholaren eta Edari Alkoholdunen gaineko Zerga Bereziak itzultzeko eskaera. Foru agindu honen 6. eraskinean ageri da.

Bi ale dauzka eredu horrek:

Interesatuarentzako alea.

Zerga Administrazioarentzako alea.

Eredu hori aurkeztu beharko dute janari beteak edo bestelakoak edo elikagaiak eta alkoholik gabeko edariak egiteko aromatizanteen fabrikazio prozesuetan alkohola eta edari alkoholdunak erabiltzeko baimena duten ustiapen industrialen titularrek, Zerga Berezien Legeak 22. artikuluan jasotako baldintzetan. Haiek

kontsumitutako produktuetan jasandako kuoten itzulketa eskatzea da ereduaren helburua.

Zazpi. 572 eredia onartu da: Hidrokarburoen gaineko Zerga itzultzeko eskaera. Foru agindu honen 7. eraskinean ageri da.

Bi ale dauzka eredu horrek:

Interesatuarentzako alea.

Zerga Administrazioarentzako alea.

Eredu hori aurkeztu beharko dute Zerga Berezien Legeak 50.1 artikulua 1. tarifa aipatutako erregai eta karburanteak erabiltzeko baimena duten ustiapen industrialen titularrek, erregai eta karburante gisa erabili ez dutenean. Haiek kontsumitutako produktuetan jasandako kuoten itzulketa eskatzea da ereduaren helburua.

2. artikulua. 509, 511, 524 eta 572 ereduak aurkezteko epea.

Bat. 509 eredia agiri laguntzailearen 3. alea jaso ondorengo hamabost lanegunen barruan aurkeztu beharko da, estatu barruko zirkulazioan izandako galerak handiagoak direnean erregelamenduzko portzentaiak aplikatuz ateratzen direnak baino eta hartzailearen jaso izanaren ziurtagirian agertzen direnean.

Aldiz, epea hiru hilabetekoa izango da igorleak agiri laguntzailearen 3. alea jaso ez duenean edo, bestela, aipatu alea behar bezala bete gabe jaso duenean. Epe berean aurkeztuko da eredu hori estatu barrutik Batasuneko beste estatu batera igorritako produktuak helburura iristen ez direnean.

Bi. Informazioari dagokion hilabetea amaitu ondorengo bost lanegunen barruan aurkeztu beharko da 511 eredia.

Hiru. Hiruhilabete natural bakoitzaren epemuga amaitu ondorengo lehen hogeita bost egunetan aurkeztuko dira 524 eta 572 ereduak.

3. artikulua. Ereduak aurkezteko tokia.

Aurreko 1. artikuluan aipatutako ereduak, 505 eredia izan ezik, Zeharkako Zergak Kudeatzeko Zerbitzuan aurkeztu beharko dira, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuan.

4. artikulua. Izena ematearen txartel ereduak onartzea.

Bat. Gipuzkoako Foru Aldundiko Erregistroan izena ematearen txartel frogagarriaren eredia onartu da. Ogasun eta Finantza Departamentuko Zeharkako Zergak Kudeatzeko Zerbitzuak luzatuko du txartel hori, ondorengoek izena eman ondoren: fabrika, gordailu fiskal eta biltegi fiskalen titularrek, produktuak jasotzeko gordailuei dagokienez erregistratutako operadoreek, Erregelamenduan jasotako txikizkako saltzaileek, erabiltzaileek eta amaierako kontsumitzaileek, urrutiko salmentak egiten dituzten enpresek eta zergeterako ordezkariak. Aipatu eredia foru agindu honen 8. eraskin gisa ageri da.

Bi. «Alkoholaren hornidura txartela» eredia onartu da, Gipuzkoako Foru Aldundiko Erregistroan Alkoholaren eta Edari Alkoholdunen gaineko Zergaren esparruan izena eman dela frogatuko duena. Ogasun eta Finantza

Departamentuko Zeharkako Zergak Kudeatzeko Zerbitzuak luzatuko du txartel hori, ondorengoek izena eman ondoren: fabrika, gordailu fiskal eta biltegi fiskalen titularrek, produktuak jasotzeko gordailuei dagokienez erregistratutako operadoreek, Erregelamenduan jasotako txikizkako saltzaileek, erabiltzaileek eta amaierako kontsumitzaileek, urrutiko salmentak egiten dituzten enpresek eta zergeterako ordezkariak. Aipatu eredia foru agindu honen 9. eraskin gisa ageri da.

Amaierako xedapena.

Foru agindu hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen den egun berean jarriko da indarrean.

Donostia, 1997ko abenduak 17. Antton Marquet Artola, Ogasuna eta Finantza Departamentuko Foru Diputatuak. (15054)(12215)